

GERNIKA / 'Bookcrossing' edo 'Liburuak Askatu' ekimena jarriko dute abian

Erabiltzaile batek egindako proposamena kontuan hartu eta liburu trukea sustatzeko 50 liburu askatuko ditu liburutegiak.

D. Lauzirika

Gabonetarako Udal Liburutegiko arduradunek 'Bookcrossing' edo 'Liburuak Askatu' ekimena jarri gura dute abian. Herriko leku publiko batzuetan liburuak utzi eta liburu trukea sustatzea da helburua. Bizilagunek liburuak irakurri ostean, berau toki publiko horietako batean utzi beharko dute. Liburutegian 'Bookcrossing' zigilua eta ekimenaren inguruko azalpena txertatuko dituzte. Horrez gain, liburu bakoitzak kode bat izango du. Erabiltzaileak 'www.bookcrossing-spain.com' webgunera sartuz lortu nahi duen liburuaren kokapena jakingo du. Horrez gain, internet bitartez liburuaren inguruko iruzkinak egin ahal dira. Liburuak irakurri ondoren, berau utzi duten tokia zein den zehaztu beharko du.

Liburutegiko arduradunek 50 liburu askatzeko asmoa dute. Horietatik 30 euskaraz idatzitako liburuak izango lirateke. Beste hogeita liburuak gaztelaniaz idatzitakoak izango dira.

Ekimena liburutegiko erabiltzaile batek egindako proposamenaren oinarritzen dela adierazi dute liburutegiko arduradunek. Liburutegitik erronka horri eutsi eta ekimen hori bultzatzea interesgarria izan daitekeela pentsatu dugu. Poztekoa da erabiltzaile batek horrelako proiektu bat bideratzeko interesa agertzea.

Prestaketa lanetan

Liburuak tabernetan, kiroldegian, anbulatorioan, Gernika institutuan, Barrutialden, tren geltokian eta Pasealekuko eskoletan uztea da Udaleko Kultura arloko arduradunen asmoa. Hala ere, oraindik prestaketa lanetan ari direla adierazi dute. Izan ere, ekimena martxan jarri aurretik egitasmoaren nondik norakoak azalduko dituen zabalpen kanpaina bat diseinatu gura dute.

Bizkaian 48 liburu askatu dituzte. Leioan, Arrigorriagan, Basaurin eta Bilbon martxan da 'Bookcrossing' ekimena. Mundu osoa liburutegi bihurtzea da Ron Hornbaker programatzaileak sortutako ekimenaren asmoa.